



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA

2016ko bigarren
hiruhilekoa

aurkibidea: edukiak eta emaitzak

a. euskal kontsumitzaileen konfiantzaren bilakaera	3
b. euskal kontsumitzaileen konfiantzaren osagaiak	7
c. euskal kontsumitzaileen erosketa-erabakiak	13
d. eranskina - indizeak	19
e. eranskina - metodologia	23
<hr/>	
<i>fitxa teknikoa</i>	26


a) kontsumitzaileen konfiantzaren bilakaera

- 1. hobetu egin da EAEko familien konfiantza.....4**
 - 2. Estatukoa eta EB-28koa geldi dago..... 5**
 - 3. aldiz, asko okertu da Frantzia, Erresuma Batuan eta Alemanian ez bezala.....6**
-

1. hobetu egin da EAEko familien konfiantza

Urteko bigarren hiruhilekoan, EAEko familien konfiantza-indizea lau puntu hobetu da (-7tik -3ra), eta 2015ean zituen mailak berreskuratu ditu.


2015. urtean, familien konfiantza hobetu egin zen, baina 2016. urtearen hasieran, geldialdia gertatu zen. Orain, ordea, egoera hobetu eta berriro ere balio positiboetara itzultzen ari dela dirudi.



2. Estatukoa eta EB-28koa geldi dago

EAEko familiek izandako susperraldiaren aurrean, familiek konfiantza horretan atzerakada txikia izan dute Estatuan (-4). EB-28ko familietan, aldiz, balioa errepikatu egin da (-6).

Hala, urteko etapa honetan, EAEko (-3), Estatuko (-4) eta EB-28ko (-6) familien konfiantza balio berberen inguruan bildu da eta, nolabait, oso pixkanaka bada ere, “balio positiboetako” etapara gerturatzeko ari dira.




* EB-28 multzoaren eta Espainiaren 2016ko II. hiruhilekoko datuak behin-behinekoak dira, eta apirileko eta maiatzeko datuen batez bestekoari dagozkie.

3. aldiz, asko okertu da Frantzian, Erresuma Batuan eta Alemanian ez bezala

2016ko bigarren hiruhilekoan, Frantziako familien konfiantzak ezkortasunean sartuta jarraitzen du (-15). Erresuma Batuan, aldiz, indizea balio positibotan (0) dago hamargarren hiruhilekoz jarraian.

Alemaniko familien konfiantza, aldiz, pixka bat hobetu egin da (-6tik -4ra), baina ez du lortu atari positibora iristea.

Konsumitzailearen konfiantza. EAE eta erreferentziako herrialdeak



* Frantziaren, Erresuma Batuaren eta Alemaniaren 2016ko II. hiruhilekoko datuak behin-behinekoak dira, eta apirileko eta maiatzeko datuen batez bestekoari dagozkie.


b) euskal kontsumitzaileen konfiantzaren osagaiak

- | | |
|--|-----------|
| 4. egoera ekonomikoaren igurikimena geldituta dago..... | 8 |
| 5. nabarmen hobetu da enpleguaren igurikimena..... | 9 |
| 6. horrek eragina izan du familiaren ekonomiak balorazioa hobe izatean..... | 10 |
| 7. ezkortasunaren barruan, aurrezkian etengabe hobetzeko joera hauteman da..... | 11 |
| 8. euskal familien konfiantzak hobetzeko joera hartu du..... | 12 |
-

4. egoera ekonomikoaren igurikimena geldituta dago

2016ko bigarren hiruhilekoan, konplexutasuneko parametroen zati handi bat errepikatu egin da salbuespen-egoera (hauteskunderik errepikatzea) eta nolabaiteko hutsunea direla eta. Horiek, neurri batean, familien eszeptizismoa justifikatuko lukete.


Ekonomia orokorraren egoera suspertzeko igurikimenez oraindik ere baxu (-7) jarraitzen dute, 2015eko bigarren eta laugarren hiruhilekoen artean izandako balioetatik oso aldentuta oraindik ere (horiek balio positiboetatik oso gertu zeuden).



5. nabarmen hobetu da enpleguaren igurikimena

Langabeziari buruzko igurikimenen indizeak zortzi puntu egin du gora eta, horrenbestez, nabarmen hobetu dela esan dezakegu. Azken hamar hiruhilekoetan lortutako datu onena (+9) izan da.

Familiek laneko ingurunea hobetzearen inguruan egin duten balorazioa bat dator aurten orain arte¹ lan-merkatuak izan duen portaera-adierazleen hobekuntzarekin: Gizarte Segurantzako afiliazioak izandako gorakada (% +1,9) eta langabeziaren jaitsiera (% -8,9).




¹ Urtez urteko hazkunde tasa, 2016ko maiatzak.

6. horrek eragina izan du familiaren ekonomiak balorazioa hobea izatean

Familiako egoera ekonomikoaren igurikimenean indizeak 4 puntu egin du gora (-9tik -5era) eta 2014. urtearen hasieratik lortutako emaitza onena izan du.


Hala eta guztiz ere, beren familiako ekonomiaren bilakaeraren inguruan euskal familiek egindako balorazioa oraindik ere balio negatiboetan dago; hau da, hobekuntza nabarmenari dagokionez, oraindik ere eszeptizismoa da nagusi, baina 2014an izandako datuetatik oso urrun dago.



7. ezkortasunaren barruan, aurrezkian etengabe hobetzeko joera hauteman da

EAEko familien aurrezteko gaitasunari buruzko igurikimenen indizea oraindik ere ezkortasun-balioetan kokatuta dago (-11) 2016ko bigarren hiruhilekoan.

Euskal familien aurrezki-igurikimenak azken hiruhilekoetan pixkanaka hobetu egin diren arren, aztertutako lau indizeen artean (ekonomia orokorra, enplegua eta familiako ekonomia), horixe da balorazio okerrena izan duena.



8. euskal familien konfiantzak hobetzeko joera hartu du

2016ko 2. hiruhilekoan, euskal familietako konfiantza suspertu eta balio positiboetara gerturatu da (-3, +4 puntu). Horixe izan da 2014an seriea hasi zenetik izandako datu onena eta urte hartan izandako erregistro negatiboetatik oso urrun dago.

EAEko familietako konfiantzak joera gorakorra hartu du enpleguaren bilakaeraren inguruko igurikimenaren (9, +8 puntu), familiako ekonomiaren (-5, +4 puntu) eta aurrezkiaren (-11, +3 puntu) igoerei esker, eta ekonomia orokorraren igurikimena ez okertzeari (-7, +1 puntu) esker.

Familien konfiantzaren indizea eta haren osagaiak. EAE



Indizea....	<u>2014</u>	<u>2015</u>	<u>III H-15</u>	<u>IV H-15</u>	<u>I H-16</u>	<u>II H-16</u>
Familien konfiantza	-20	-6	-6	-4	-7	-3
Ekonomia orokorra	-21	-4	-2	-1	-8	-7
Etxeko ekonomia	-15	-9	-7	-6	-9	-5
Langabeziaren bilakaera	-18	3	1	6	1	9
Aurrezteko gaitasuna	-23	-16	-17	-15	-14	-11

c) euskal kontsumitzaileen erosketa-erabakiak


9. inflazio baxuaren igurikimena sendotu egin da (prezioetan gorakadarik gabe) 14
10. erosteko unearen balorazioari dagokionez, gehienek ez duela axola uste dute oraindik ere.....15
11. eta ez dute aipatu “erosketa handiak” egiteko asmo argia dutenik.....16
12. baina suspertu egin da autoa erosteko asmoa.....17
13. egoeraren hobekuntza (enplegua, prezioak) sendotu egin da, ~~baina kontsumoak (funts jakin batekoak) oraindik ez du lortu~~ haztea18

9. inflazio baxuaren igurikimena sendotu egin da (prezioetan gorakadarik gabe)

Prezioen bilakaerari lotutako igurikimena aurreko hiruhilekoetakoaren antzekoa da: euskal kontsumitzaile gehienek ustez, hurrengo hilabeteotan prezioetan izango den igoera azken urtekoaren antzekoa (% 50) izango da edo pixka bat geldiago igoko dira (% 35).

Iritzi hori hedatzen den informazioan² oinarrituta dago, prezioen hazkundeari eutsiko diola diotenak (KPIa, petrolioaren prezioak,..).

Zure ustez, nola haziko dira¹ prezioak hurrengo 12 hiletan?
(pertsonek %-a)




¹ Azken hamabi hilabeteekiko

² "Banku Zentralak interes tipoa % 0an mantentzen ditu, inflazioa ere baxua mantentzen delarik"; 2016/06/02

10. erosteko unearen balorazioari dagokionez, gehienek ez duela axola uste dute oraindik ere

¿Nola baloratzen duzu, oro har, etxeko artikuluak erosteko egungo unea (altzariak, etxetresna elektrikoak, tresna elektronikoak,..)?

Erosteke unearen balorazioa hobetzen ari da, baina oso poliki, eta aldaketa-joera txikiak erakusten ditu. Une txarra dela uste duen taldea pixkanaka gutxitu egin da (% 25, ehuneko -3 puntu urtebetean) eta horiek uneak ez diola axola uste duen taldean sartu dira (% 57, ehuneko +4 puntu). Une ona dela uste dutenen taldea, aldiz, egonkortu (% 18) egin da.



¹ Azken hamabi hilabeteekiko


11. eta ez dute aipatu “erosketa handiak” egiteko asmo argia dutenik

¿Nolakoak uste duzu izango direla etxeko gastu edo erosketak (altzariak, etxetresna elektrikoak, etxeko konponketak eta abar) datozen 12 hilabeteetan¹?

2016ko lehen bi hiruhilekoek erosketa-asmoak ia ez duela aldaketarik izan erakusten dute: euskal kontsumitzaileen artean, hirutik bik (% 66) uste du bere erosketak ugarituko dituela; lautik batek (% 26) uste du duela urtebetekoak baino gutxiagokoak izango direla, eta hamarretik batek (% 8) baino gutxiagok adierazi du ugaritu egingo dituela.

Hitz gutxitan esanda, erosketa-asmoaren indizea apur bat jaitsi da (-9tik -14ra), baina 2015ean izandakoaren antzekoa da (-12).

Zure ustetan, nolakoak izango dira etxerako erosketak datozen 12 hiletan ¹
(personen %-a)



¹ Azken hamabi hilabeteekiko

12. baina suspertu egin da autoa erosteko asmoa

Etxebizitza erosteko asmoa (*hurrengo hamabi hiletarako*)
(pertsonek / familien %-a)




Etxebizitza erostearekin lotutako igurikimenak oraindik ere oso baxuak dira.


Azken zortzi hiruhilekoetan bezalaxe, EAEko familien % 2k bakarrik aipatu du hurrengo urtean etxebizitzako inbertsioren bat egiteko probabilitateren bat duela.



Aldiz, apur bat igo da hurrengo hamabi hilabeteetan ibilgailua erosteko asmoa duten familien proportzioa eta % 6 ingurukoa da.



Autoa erosteko asmoa (*hurrengo hamabi hiletarako*)
(pertsonek / familien %-a)




13. egoeraren hobekuntza (enplegua, prezioak) sendotu egin da, baina kontsumoak (funts jakin batekoak) oraindik ez du lortu haztea

2016ko 2. hiruhilekoan, kontsumoa (“erosketa handiak”) suspertzeko hobekuntza-baldintzak sendotu egin dira:

- Ez da aurreratu inflazioaren gorakada gertatuko denik (21, +7).
- Erosteke unearen balorazioa hobetu egin da (-11, +4).
- Baina kontsumitzaileek ez dute erosketak egiteko igurikimenean (-14) hobekuntza (esanguratsurik) erakusten (oraindik ere).

Beraz, familiek enpleguan hobekuntza eta prezioen aldeko testuingurua izango direla onartu dute eta horrek eguneroko kontsumoa errazten du. Dena den, oraindik ere zuhurtziaz jokutzen dute erosketa handiak egiteko (aurrezkia suspertzeari lotuta daude). Dena den, ibilgailuaren erosketarekin lotutako igurikimenak hobeak dira. Horrek lotura handiagoa izaten du finantzaketarako sarbidearekin.

Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk

	<u>III H-15</u>	<u>IVH-15</u>	<u>IH-16</u>	<u>IIH-16</u>	<u>Aldea</u>	
Prezioen bilakaeraren igurikimenak	11	16	13	21	+7	
Erosteke unearen balorazioa	-10	-11	-11	-7	+4	
Erosketak egiteko igurikimenak	-12	-11	-9	-14	-5	

d) eranskina - indizeak

- I. Laburpena: familien konfiantzaren indizea 20**
 - II. Euskal familien konfiantza, ezaugarrien arabera 21**
 - III. Beste adierazle batzuk 22**
-

Laburpena: familien konfiantzaren indizea

Laburpena: konfiantzaren indizea	2014	2015	III H-15	IV H-15	I H-16	II H-16	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea							
• EAE	-19	-6	-6	-4	-7	-3	↑
• Estatua*	-9	0	-1	2	-2	-4	→
• EB*	-7	-4	-5	-5	-6	-6	→
○ Frantzia*	-22	-17	-17	-14	-15	-15	→
○ Alemania*	1	0	0	-4	-6	-4	→
○ Erresuma Batua*	5	3	2	2	2	0	→
Osagaiak: familien konfiantza. EAE							
• Ekonomia orokorra	-21	-4	-2	-1	-8	-7	→
• Etxeko ekonomia	-15	-7	-7	-6	-9	-5	↑
• Langabezia	-18	3	1	6	1	9	↑
• Aurrezkia	-23	-16	-17	-15	-14	-11	↑
Kontsumoari buruzko igurikemenen beste indize batzuk. EAE							
• Prezioen bilakaerari buruzko igurikimenak	3	6	11	16	13	21	↑
• Erosteke unearen balioztapena	-23	-19	-10	-11	-11	-7	↑
• Erosketak egiteko igurikimena	-20	-12	-12	-11	-9	-14	↓
Erosketa handiak. EAE.**							
• Etxebizitza	2	1	1,2	1,3	1,2	2,7	→
• Autoa	4	3	3,1	3,4	3,7	6,6	↑

⇔ (± 2 puntuko aldea)

* II hiruhileko datuak apirila eta maiatzeko batez bestekoari dagozkio.

** Erosteke probabilitatea (asko, nahiko)

Euskal familien konfiantza, ezaugarrien arabera

Konfiantza, kontsumitzaileen ezaugarrien arabera	2014	2015	III H-15	IV H-15	I H-16	II H-16	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea							
• EAE	-19	-6	-6	-4	-7	-3	↑
Adin-mailak							
• 25 eta 39 urte bitartean	-16	-4	-1	-4	-3	2	↔
• 40 eta 54 urte bitartean	-15	-4	-2	-1	-5	1	↑
• 55 eta 64 urte bitartean	-23	-9	-14	-7	-8	-7	↔
• 65 eta 74 urte bitartean	-27	-8	-13	-7	-17	-12	↑
Lan-egoera							
• Landuna (soldatapekoa / norberaren konturakoa)	-14	-1	1	0	1	-1	↔
• Langabea	-37	-19	-18	-16	-27	-22	↑
• Ez-aktiboa (erretiratua, etxeko langilea, ikaslea, ..)	-25	-8	-12	-7	-12	-14	↔
Familia-unitatearen hileko errenta							
• 1.700 €-rainokoa	-35	-21	-23	-17	-23	-23	↔
• 1.701 eta 2.800 € bitartekoa	-20	-3	-4	0	-3	-6	↓
• 2.800 €-tik gorakoa	-2	9	8	8	10	2	↓

Beste adierazle batzuk

Beste adierazle batzuk	II H - 15	III H - 15	IV H - 15	I H - 16	II H - 16 ^(P)	(azkena)
BPG	2,8	2,8	3,1	3,4	--	I hir.
Familien kontsumoa	3,3	3,1	3,0	3,1	--	I hir.
Afiliazioa	0,8	-0,7	2,2	-0,3	1,2	maiatza
Erregistratutako langabezia	-5,6	-4,3	-1,8	1,5	-2,7	maiatza
Txikizkako merkataritzaren salmenta-indizea	0,5	1,4	0,0	0,6	--	I hir.
Azalera handien salmenta-indizea	0,1	0,2	0,1	-0,1	0,3	apirila
Etxebizitzen salerosketa	10,3	-5,9	-10,4	35,8	--	I hir.
Ibilgailuen matrikulazioa	4,7	-10,8	14,6	-8,0	9,1	maiatza

1. BPG eta etxeetako kontsumoa. Ekonomiako kontuak, Eustat. Bolumen kateatuaren indizea; urtetik urterako tasa.
2. Afiliazioa. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
3. Erregistratutako langabezia. SEPE. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
4. Txikizkako merkataritzako salmenta-indizea. Eustat. Hiruhilekoen arteko tasa.
5. Azalera handien salmenta-indizea. Eustat. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa.
6. Etxebizitzen salerosketa. Ondare-eskualdaketen estatistika, EIN. Hiruhilekoen arteko tasa.
7. Ibilgailuen matrikulazioa. Faconauto. Hiruhilekoen arteko tasa.

Erreferentziatzko datua hiruhilekoko batez bestekoa denetan, eskura dagoen azken datua (hil batekoa edo bikoa) hartzen da kontuan, azken aldakuntza kalkulatzeko. Erreferentziatzko datua hiruhilekoko metatua denetan, eskura dagoen epealdiaren gainean -azken hila aurrekoarekiko, edo azken bi hilak aurreko biekiko- kalkulatu da azken aldakuntza.

e) eranskina - metodologia

- I. Kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da? 24**
 - II. Zer esan nahi du indizearen bilakaerak? 25**
-


Kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

Hainbat eragilek datozen hamabi hiletan izango duten bilakaerari buruz pertsonek duten iritzia laburtzen duen adierazlea da kontsumitzailearen edo familiaren konfiantza-indizea. Hona hemen adierazleok:

- 1) ekonomia orokorraren egoera
- 2) etxeko ekonomiaren egoera
- 3) langabeziaren bilakaera
- 4) etxean aurrezteko duten gaitasuna

Euskal familietako pertsonen konfiantza-indizea¹ kalkulatzeko, Europako Batzordearen metodologia (galderen diseinua eta indizeen kalkulua) erabiltzen da.

Kontsumitzailearen konfiantza-indizea



¹ *Consumer Confidence Indicator*; dokumentu honetan, familien konfiantza-indizea erabili dugu, kontsumitzaileen iritzia berri emateko.

Zer esan nahi du indizearen bilakaerak?

Konfiantza-indizea pertsonen iritziarekin osatzen da. Ekonomia orokorrak, etxeko ekonomiak, aurrezkiak eta langabeziak gaurkoaren aldean urtebete barru izango duten egoera balioztatzen dute horiek.

Bost mailatan (askoz okerragotik askoz hobetorainoko bitartean) sailkatzen da.

- Arlo bakoitzean lortutako erantzunen tratamendu agregatua indize partzial bat da.
- Eta familien konfiantza-indizea lau indize horien (kontsumitzaileen konfiantzaren osagaien) batez besteko balioa da.

Osagaiak: konfiantza-indizea

Hauen indize partzialak:

- *ekonomia orokorrarena*
- *etxeko ekonomiarena*
- *aurrezteko gaitasunarena*
- *langabeziaren bilakaerarena*

Nola interpretatzen dira lortutako emaitzak?

- Balio positiboak (100era artekoak): egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek.
- Balio negatiboak (-100era artekoak): egoerak txarrera egingo duela uste dute familia gehienek



fitxa teknikoa

- *Inkesta EAEko 800 laguni egin zaie.*
- *Maiatzaren 2. eta 3. astean (2016ko II. hiruhilekoa)*
- *Banaketa: sexua, adin-taldeak, jarduerarekiko erlazioa eta errenta-mailak.*
- *% 95eko konfiantza, +/- % 3ko lagin-errorea*

metodologia

- *Kontsumitzailearen konfiantza-indizea*
- *Europako Batzordea* http://ec.europa.eu/economy_finance/db_indicators/surveys/index_en.htm